

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko irailaren 6ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru dekretuak:**

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 58/2016 Foru dekretua, irailaren 6koa, zeinaren bidez hutsa jotzen baita dirulaguntzetarako deialdi hau: Arabako lurralde historikoan genero berdintasunaren arloan ekintzak sustatzen dituzten Arabako kuadrilletan berdintasun egiturak sortzeko dirulaguntzetarako deialdia.

Diputatuen Kontseiluaren 59/2016 Foru dekretua, irailaren 6koa, onartzen dituena Arabako lurralde historikoan genero berdintasunaren arloan ekintzak sustatzen dituzten Arabako kuadrilletan berdintasun egiturak sortzeko dirulaguntza deialdia eta oinarri arauak.

– **Erabakiak:**

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 530/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena Iruña Okan Suhitzaileen Parke Zentralaren obrak gauzatzeko kontratazioaren deialdia eta espedientea; prozedura irekiaren bidez esleituko da, esleipen oinarria 1.974.920,42 euro direla, BEZa aparte, eta berrogeita hiru asteko gehienezko epean gauzatzeko

Diputatuen Kontseiluaren 531/2016 Erabakia, irailaren 6koa, ezesten dituena Okondoko Udalak eta Arkautiko Administrazio Batzarrak 56/2016 Erabakiaren kontra aurkeztutako berraztertze errekurtsuak (56/2016 Erabakia, otsailaren 16koa, Obra eta Zerbitzuen 2016-2017 Foru Planaren kontura laguntzak esleitu eta ukatzeari buruzkoa).

Diputatuen Kontseiluaren 532/2016 Erabakia, irailaren 6koa, ezetsi egiten duena Villaverdeko Administrazio Batzarrak 328/2016 Erabakiaren kontra aurkeztutako erreklamazioa (328/2016 Erabakia, maiatzaren 31koa, Obra Txikiak Gauzatzeko 2016ko Programaren kontura laguntzak esleitu eta ukatzeari buruzkoa).

Diputatuen Kontseiluaren 533/2016 Erabakia, irailaren 6koa, Iturri, sozietateari esleitzen diona aireko eskaileradun ibilgailu bat eskuratzea 551.720 euroan, BEZa aparte.

Diputatuen Kontseiluaren 534/2016 Erabakia, irailaren 6koa, Eduardo Samaniego Garrosa jauna izendatzen duena Barrongo Administrazio Batzarreko kide kudeatzaile.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 535/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena kontratatzea, prozedura irekiaren bidez, Laudioko Lamuza parkeko El Casino deritzon eraikina zaharberritzeko lanak, 1.189.703,70 euroko aurrekontuarekin (BEZa aparte), zortzi hilabeteko epean gauzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 536/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena Carlos Abaitua aterpetxea zaharberritzeko obrak likidatzea (zeina 216/2014 Erabaki apirilaren 15ekoaren bidez onartu baitzen).

Diputatuen Kontseiluaren 537/2016 Erabakia, irailaren 6koa, Sociedad estatal Correos y Telégrafos, SA sozietateari esleitzen diona Arabako Foru Aldundiari eta Derrigorrezko Dirubilketa kudeatzen duen entitateari posta zerbitzuak emateko eginkizuna, 1.923.900 euroko gehienezko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta 2018ko abenduaren 31 arteko iraupenarekin.

Diputatuen Kontseiluaren 538/2016 Erabakia, irailaren 6koa, uztailaren 27ko 484/2016 Erabakia aldatzen duena, zenbait errakuntza zuzenduz.

Diputatuen Kontseiluaren 539/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena Arabako eskualde behartsuetan enplegua sortzeko laguntzetarako 2016ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluaren 540/2016 Erabakia, irailaren 6koa, Arabako Kuadrilletan enplegurako prestakuntza emateko laguntzen 2016ko deialdia ebazten duena, 191/2016 Erabaki apirilaren 12koaren bidez egin zen deialdia).

Diputatuen Kontseiluaren 541/2016 Erabakia, irailaren 6koa, ebazten duena turismoa sustatzeko jarduerak gauzatzeko Arabako zenbait kuadrillentzako 2016ko ekitaldirako laguntzen deialdia, 192/2016 Erabaki apirilaren 12koaren bidez egin zena.

Diputatuen Kontseiluaren 542/2016 Erabakia, irailaren 6koa, ebazten duena turismoa sustatzeko jarduerak gauzatzeko Arabako zenbait kuadrillentzako 2016ko ekitaldirako laguntzen deialdia, 192/2016 Erabaki apirilaren 12koaren bidez egin zena.

Diputatuen Kontseiluaren 543/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena dirulaguntza bat esleitzea, 30.000 eurokoa, Turismoa eta Ekonomia sustatzeko "Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea" elkarteari, Arabako Errioxa turismo arduratsuko destino gisa aholkatu eta ziurtatzeko kostuetarako. (Biosphere Responsible Tourism).

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 544/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eskaturik, kreditua gaitzeko 21/2016 espedientea, 420.579 eurokoa, "Enplegua sortzeko programa" izeneko partida berrirako, Lanbide zerbitzuak Aldundi honi emandako dirulaguntza izenduna dela-eta.

Diputatuen Kontseiluaren 545/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskaturik, "Dulantzi HUA" izeneko gastuen egoerako partidaren konpromiso kreditua sortzeko 7/2016 konpromiso kreditua, 800.000 eurokoa, doitzearren Aguraingo saneamendua eta arazketa hobetzeko proiektuaren aurrekontu izendapena.

Diputatuen Kontseiluaren 546/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eskatuta, kreditu transferentziako 103/2016 espedientea, 12.100,00 eurokoa, funtsez hornitzeko "Zerbitzuak, hainbat eratakoak" izeneko partida.

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 547/2016 Erabakia, irailaren 6koa, ezetsi egiten duena interesatuak 711/2015 Erabakiaren kontra aurkeztutako berraztertze errekurtsoa (711/2015 Erabakia, abenduaren 15koa, nekazaritza eta ingurumen arloko neurrietarako laguntzetarako 2015eko deialdia ebazten duena).

Diputatuen Kontseiluaren 548/2016 Erabakia, irailaren 6koa, baimentzen duena lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea Asparreneko Udalarekin, Eginoko Administrazio Batzarrarekin, Arbalaitz SL sozietatearen hegazti ustiatuekin eta Tolosa SL sozietatearekin, Ziordiko baserri bidea konpondu, egokitu eta hobetzeko, eta onartzen duena baserri bide horretan obrak egiteko proiektua, prozedura negoziatu publikitatekin gabearekin kontratatzeko, 217.420,16 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta 12 hilabeteko epean gauzatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 549/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena kontratazio espedientea, prozedura irekiaren bidezkoa, kontratatzeko "Arabako Lurralde Historikoan baso suteetatik babesteko azpiegiturak eraikitzeko lanetarako makineria ekipoa (EGEF), urteroko aurrekontua 350.000 euro direlarik, BEZa barne, urtebeteko epe baterako, zeina urtebetez luzatu ahal izango baita, gehienez ere bi urte.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 550/2016 Erabakia, irailaren 6koa, behin betiko onartzen duena ondasun eta eskubide erasanen zerrenda, "Arabako Haranetako IV. guneko ureztapena hobetu eta modernizatzeko proiektua, banaketa sarea" izeneko proiektuarena, eta adierazten duena ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharrezana desjabetzeari begira, bai eta desjabetzeko espedientea presako prozeduraz izapidetzeko beharrezana ere.

Diputatuen Kontseiluaren 551/2016 Erabakia, irailaren 6koa, zeinaren bidez Promociones y Pavimentaciones Balgorza, SA eta Nuño y Pescador, SA sozietateen arteko ABEEari esleiten baitzaio proiektu hau: "A-4340 errepidea Melledesetik Manzanosera arteko tartean zabaldu eta hobetzeko proiektua". 1.123.370,86 euroan esleitu zaio, BEZa barne, hamar hilabeteko epean gauzatzeko.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 552/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena lankidetzako esparru hitzarmen bat sinatzea Arabako Lurralde Historikoko udalekin eta administrazio batzarrekin Garbitxikiak eraiki/hobetzeko eta zaintzeko obrak gauzatzeko

Diputatuen Kontseiluaren 553/2016 Erabakia, irailaren 6koa, "Saitec SA" enpresari esleitzen dizkiona "Aguraingo saneamendua eta arazketa hobetzeko proiektua"ri dagozkion zerbitzuak, 157.632,30 eurotan (BEZa barne), eta 5 hilabeteko gauzatze epearekin.